

## EUSKAL KONPLETIBATZAILEAK: BILDUMA BATERAKO

*Donostia, 1988-V-27*

*Endrike Knörr*

### RESUMEN

En este trabajo se ofrece un esquema de las posibilidades de formar oraciones completivas en euskara, siguiendo un criterio formal de empleo del verbo y partículas, y sin apenas entrar en el valor de las diferentes frases (por ejemplo, carácter interrogativo o no).

Un primer grupo (1) es el que contempla las oraciones con formas no personales del verbo: el sustantivo verbal (1.a), el participio (1.b) y con el radical (1.c). El segundo grupo abarca el empleo con formas personales, sin partícula (2.a), con partícula y sin que el verbo quede alterado (2.b), y con partícula y alteración del verbo (2.c). Se añaden ejemplos de oraciones completivas sólo aparentemente condicionales (cf. en español *Me gustaría si no vinieses tarde*). Se habla después de la dificultad de distinguir entre oración y mero complemento circunstancial, y el artículo termina comentando que muchas frases exclamativas en euskara, como en otras lenguas, son formalmente completivas, lo mismo que otras frases concesivas, modales, de relativo generalizador y modales.

\* \* \*

Fakultateko eskolen sorkari den txosten honek helburu apala eta xumea du: euskal konpletiboak eskema batean agertu nahi ditugu lehen partean, eta exenpluak eta iruzkinak erantsi, bigarreanean. Azken aldean, gainera, zenbait arazo ukitu nahi izan ditugu, gaiarekin zerikusia dutenak. Garbi geldi bedi, hortaz, gurea lerrokada- edo katalogo-lan hutsa izango dela, gehien bat. Esamolde bakoitzaren balioaz puntu batean edo bitan baizik ez gara ariko.

Esan beharrik ez, euskal konpletiboek izan dituzte aztertzaile zorrotzak, lehen eta orain. Patxi Goenaga eta Jose Antonio Mujika aipatu behar dira hemen, oroz gain. Jakina denez, Goenagak bere tesian harrotu zuen gai hau, *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Tesia-

ren laburpen bat argitaratu da, “Complementación y nominalización en euskara”. Mujikaren lana pixka bat zaharragoa da: “-(e)la eta beste konpletibatzaileak”. Goenaga itzuli zen gai honetara, “Konpletiboak, zehar-galderak eta erlatiboak” deritzan artikulua, in *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Liburu berean ikus B. Oyharçabalen artikulua, “Erlatibakuntza: Perpaus erlatiboaren egitura; izen erlatibatuaren betekizuna haren banean”. Ikus orobat Oyharçabalen *Les relatives en basque*, batez ere 137 eta darr., eta haren tesi nagusia, *Étude descriptive des constructions complexes en basque*. Bestelako lanak gogaraz daitezke, hala nola A. Arejitareren *Euskal joskera*, edo Luis Villasanteren *Sintaxis de la oración compuesta*.

Beste hau ere ez nuke esan behar: konpletiboetan zehar-galderazkoak sartzen ohi dira egun, behialako usadioez bestera.

Adibideak liburuetatik jasoak badira, iturria aipatzen da, bibliografian xehekiro azaldua. Autorerik ez bada adierazten, han-hemenka entzunda-ko perpausak dira.

## ESKEMA NAGUSIA

### 1. Perpaus konpletiboan forma ez-pertsonalak

- 1.a. Aditz izena
- 1.b. (Galdetzailea + ) Partizipioa
- 1.c. Galdetzailea + Aditzoina

### 2. Perpaus konpletiboan forma pertsonalak

- |                                |   |   |
|--------------------------------|---|---|
| 2.a. Beste partikularik gabe + | } | -(e)la<br>-(e)n<br>-(e)na<br>-(e)nik<br>-(e)nz, -(e)nen(t)z, -(e)nez<br>-(e)lako<br>-(e)lako(t)an |
|--------------------------------|---|---|

- |      |                                 |   |     |
|------|---------------------------------|---|-----|
| 2.b. | (e)ze<br>ezen<br>ezi(k)<br>bait | } | + Ø |
|------|---------------------------------|---|-----|

2.c. Aurreko atalean (2.b.-n) ageri diren partikulak, salbu *bait*, gehi:

<i>nola</i>	}	-	(e)la / -(e)n
<i>zelan</i>			
<i>zenbat</i>			
<i>ea</i>			
<i>ote, e.a.</i>			

### 3. Perpaus konpletiboa baldintzaren itxuran

#### ADIBIDEAK ETA IRUZKINAK

- 1.a. ...*eta etzuan nai au guertatzea*. Agirre Ast., II, 250. (Begira zer diogun beherago, -(e)nik delakoaz.)
- *Hobe duzu lehenbailehen joatea.*
  - *Garaiz iristearen poza.*
  - *Jaun San Bartolome denbora beroak egiten zalea da.* L. Villasante, *Pal. vascas, comp. y deriv.*, 140.
  - *Herri honek garbi erakutsi du orain artean euskararen aldeko ekin-tza masiboetan integratzen zale dela.* F. Ibargutxi eta A. Lertxundi, *El Diario Vasco*, Martxoak 16, 1988.
  - *Aitaren jiteaz atsegin dut.*
  - *Lan egiteko asmoa zuen.*
  - *Ez zen ausartzen egia esaten (edo esatera).*
  - ...*gogo eguin nečan, neure ahal guciaren egitera, eta Iaincoac eman placer vkan drautan guciaren vorondate onez haren Eliçaren edifica-tionetan empletzera.* Leizarraga, Erreginari egindako hitzaurrea.
  - *Ecèn eguiaz erraiten drauçuet, anhitz Prophetac eta iustoc desiratu vkan dutela ikustera çuec ikusten dituçuen gaucén.* Leizarraga, *Mat.* 13, 17.
  - ...*obligatua çarenean çure egunorozco Debocioneac utztera.* Haraneder, 161.

Ezaguna da maiz ergatiboaren marka ez dela agertzen, honako per-paus honetan, adibidez:

– *Ez du merezi presaka joatea.*

- 1.b. – *Ez duzu zertan etorri goiz.*
- *Damu dot, Yauna, biotz guztiric zu ofenditu izana.* Añibarro, 88.
  - *Damu dot ceu ofenditua.* Ib., 103.

*Ez zegoen zergatik aldaturik.*

— *...non doloratcen bait da, desiratcen duena, ecin ardietsi içanaz.*  
Haraneder, 159.

*Behin baino gehiago gerturatu zitzaien zer entzungo, zer ikusiko.*  
Egaña, 36.

— *Lan egin asmo dut.*

— *Zer pentsatu ematen dit.*

— *Zer pentsaturik ematen dit.*

— *Baina zer pentsatu handia ematen dit, ikurrina zintzilikatu duen abertzale sutsua barman deneko tabernara joan —bi baxoerdi— eskatu eta ulertu dizuten/ez dizuten zalantza bizian geratu behar baduzu.* R. Iraola. *El Diario Vasco*. Abuztuak 12, 1988.

— *Aita (noiz) etorri(ko) zain nago.*

1.c. — *Baduzu zer konta.*

— *...Iaincoaren hitz purari iarreiquiteco desira dutenéc, sporçu dugu eridenen dutela (supurturequin) cerçaz contenta.* Leizarraga, “Heuscalduney”.

— *Ez dakit zer egin, ta nola kontsola.* D. Landart, 28.

Agian, azken enxempluan aditz laguntzailea ezabatu da, hots, *Baduzu zer konta (dezakezun)*, eta berdin esan daiteke pareko adibideez, Mendebaldeko euskalkietan partizipioa erabiltzen denean.

2.a. — *Badakit Manu etorri dela.*

— *Bi egun dira ikusten ez zaitudala.*

— *Ordea ezta handic seguitcen gaixto ago dela euscara.* Axular, 19-20.

— *Beguirautçu, etçaudela emaztétan pensatcen.* Axular, 370.

— *Berce gendec vste çuten / Ecin scriba zayteyen / Oray dute phorogatu / Enganatu cirela.* Etxepare, 14, 8.

Ikusten denez, ahapaldi berean *-(e)n* eta *-(e)la*, bata *vste* aditzarekin eta bestea *phorogatu*-rekin, ez, noski, zori hutsagatik: oroit *uste* eta antzekoekin egun gutziz arrunta dela *-(e)n* Ekialdean.

— *...peril bailluque, accometa liaçaçuten çuçen dutela lur haren gainean.*  
Axular, 79. Biak desberdinak, hortaz.

— *Nahi eztuenac dei deçaten otso, ezteçala iauntz otsolarruric.* Axular, 403.

— *...gogan behartu naiz eta veldurtu, eztiren bideac asco segur eta garbi.* Axular, 16.

- ...*beldurrez hortie pacient içaiteco usantza har deçan...* Haraneder, 159.
- *Hartacotz conbeni dela jujatcen dit lehen beno lehen içan dadin inprimatia.* Maizter, xiv.
- *Hunen gainean çure maiestateari supplicamenduz nagoca, dena onetacotz othoi recebitu nahi duçun.* Leizarraga, Erreginari egindako hitzaurrean.
- *Ea laguneen haciendea deseadu dabeenz beretaco...* Kapanaga, 95.
- *Ez dakit etorri danez.* Gipuzkoan bederen arrunta.
- *Ené euscara eta lengagia eztaquit aprobatia içanen denéz.* Tartas, 49.
- *Arguiro dazaut, ondu ecic, betico galduco nazana.* Añibarro, 50.
- *Bigarrena, sinistea Aita dâna.* O. de Arin, 12.
- *San Agustinec autor evan bere buruba gaiti, egunian egunian juramentu eguiteco oitura galduba eucana.* Madariaga, I, 116.
- *Frances hosteac jaquingo dic / Ura Ondarribian zana.* Isasti, ikus K. Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos*, 99-100, iruzkin honekin: “Éste es, finalmente, que sepamos, el ejemplo más antiguo del empleo dialectal del suf. ‘relativo’ *-(e)n*, *-(a)n* más *-a* para enlazar subordinadas a su principal”.
- *Ez dakizula zer dudan eskuan* (Itaun hizkuntza).
- *Ez dezazula pentsatu virtutietan ecer aurreratuco dezula...* Etxeberria, 114.
- *Judasek etziaquian, Jesus zala Jaungoico, ta guizon eguiazcoa.* Agirre, II, 260.
- *Ezin sinistu det emen guertatzen dirala onelaco modu itsusiac.* Agirre, II, 191.
- *Manuk ez daki Ainhua Madriletik etorri denik.*

Esamolde hau, Mendebaldeko euskaran ia lege bihurtua, ez da ageri testu zaharretan ez berriagoetan (ikus gorago dakartzagun adibideak). Agian lege edo erregela horren adierazle garbiena Manuel Lekuona izan zen, *Gero*-ren bere edizioaren hitzaurrean, Zarautz 1954, xxv, Axularren perpaus bat “zuzendu” zuenean. Lehendik zetorren kontua, jakina: ikus Altube, *Erderismo*, 121 (hala ere, hizkuntzaren senagatik, Altubek bereizkuntza bat egiten zuen, *Ezin ukatu da* eta antzeko perpausekin).

- *Ükhen dü arrapostü / ez direla hüntü.* “Atharratze jauregian” kanta.
- ...*ongui handiogoac eguin letçakelaco aitcekiaren azpian.* Haraneder, 159.

- *...eta argatic Franciaco Erregue andi San Luisec gueyago estimatcen zuen cristava zalaco honra, Erregue zalaco baño.* Gerriko, I, 5.
- *...an secreto andiren bat datorrelaco ustean.* O. de Arin, 94.
- *...eta han agurtu zuen ero-pusketa hura, gehiago ikusiko ez zuela-koan...* Egaña, 38.
- *Gerra hasi zelako berria.*
- *Zalantza dut zartu naizelakoa.* Lizardi (non?).

Mitxelenak aipatzen du perpaus hau eta honako hau dio: “...aunque admisible en poesía, me parece un poco extraña”, ikus ohar hau Villasanteren *Sintaxis de la oración compuesta* liburuan, 66.

- *...esango neusquezu, ez deutsudala icusi cristinauba zarianen usain ta igargarritic.* Mogel, 67.
- *Norekin zoazen. Zer bide hartzen duzun.*

Azken perpaus hauek izan daitezke: 1. *Norekin zoaz?* eta *Zer bide hartzen duzu?* galderen errepikatzea, eta 2. “Según con quién vayas” eta “Depende del camino que tomes” gaztelaniazkoen ordainak.

Galdetzaille bat eta *-(e)n* dugunean, ez dirudi zilegi deklinabide atzizkirik ezartzea, baina hara zer dioen Haranederrek:

- *...hunen Eguile eguiazcoa [hau da, Gudu izpirituala ondu zuena] nor denaren gainean..., v.*

Hala ere, egun hedatzen ari zaigu usadio hau:

- [Emiliano Revillaren] *bahitzaileak nor izan zitezkeenari buruz.* Euskadi Irratitik entzuna, Otsailak 26, 1988.
- *Profesionalak izaki, nondik nora zebiltzan bazekitenaren seinale garbi garbia.* Egaña, 36.

Orobat, ez dirudi gramatikala *-(e)la*-ren atzean deus ezartzea, *-ko* salbu (*Joanes etorri delako berria*, esaterako), konpletiboak eratzeko. Baina egun korritzen dute honako perpausak:

- *...engainatu zutelaren itxura eginez.* Xabier Gereñoren eleberri batetik Beñat Oiharzabalek jasoa, *Étude descriptive*, 139.

Hemen aipa dezakegu de Rijk-ek *sasi-erlatiboa* deitua. Oyharçabalek (*Les relatives en basque*, 139) badakar Leizarragaren exenplu hau:

- *Salua ahal guentezquelaco sperança gucia gal gueneçan.* Apost. Egintzak, 27, 20.

Eta ondoren ezartzen du oraintsuko itzulpena:

- *Galdu genituen onez aterako ginen itxaropen guztiak.*

Gure gaiari datxekola, argi dago egungo egunean arrunta dela bereiztea, *-ko* atzizkiaz denaz bezanbatean, konpletiboa (a) eta erlatiboa (b):

- a) *Ekainean inola ere esamina gaudituko ez nuelako segurantza.* (Hots, *-(e)lako*.)
- b) *Arratsalde hartan, Salamancan gineneko oroitzapenak harrotu genituen.* (Hots, *-(e)neko*.)

2.b. — *Eta guertha cedin egun hetan ethor baitzedin ordenañçabat Cesar Augustoren partez.* Leizarraga, Lukas 2, 1.

— *Andreak esan eutzan ze ia etzan akorda zelan yoan zan biagian. Eta erantzun eutzan ze baietz.* Barandiaran, II, 274.

Batzutan ze hori estilo zuzenaren sargailua genuke:

— *Señoriek esan eutsela ze: “kanpora urten biar dozu ointxe”.* Ibidem, 17.

2.c — *...oustez eçi..hartarik landa içanen den nourbait... Maizter, xvi.*

— *Jaquinzazu ce deabruaren aleguin guztiya dala, zuri gauza oneraco deseoa eragoztia.* J. C. Etxeberria, 188.

— *Yaquinic egon bear tzara ecé, bazabiltze gazteac naastean batzaaco dantzetara, yolasera, fiestetara, gau-biguiretara, erroldara... etzareela garbi izango.* Añibarro, 126-127.

— *Mezatarata etsereanic urteten dozunean, uste izan ece, Calbariora zoazala.* *Ib.*, 13.

— *...gauza anditzat esaten du, ecic, Gaztelan badirala lurrac... Ceñari nic erantzuten diodan, ezen, Guipuzcoaco mugapean badirala alor asco ta asco, anega batequin oguei ta amar artzen dituztenac.* Iztueta, 27.

— *...hala-ere consideratzen nuenean, nola gure demborán-ere anhitz personage iaquinsuric Testamentu berriaren translationean emplegatu içan den... Leizarraga, Erreginari egindako hitzaurrean.*

Galdetzailera baldin bada konpletibatzailea, *-(e)n* erako perpausa dugu. Honako hau, testuan bakarra, oker ez banaiz, oharkabearen kumea izan liteke:

— *Oroituco dira, nola beste ascó, bearbada becatari andiangoac, Cerura joan cirala.* Agirre, II, 303.

Gauza jakina da zeñismoa deritzanarengatik gaitzetsia izan direla ezen eta antzekoak, Mendebaldean ez ezik, baita Ekialdean ere. Oroit Lafitterenaz: “Les anciens auteurs commençaient volontiers par ezen ou

*baizik-eta* les propositions subordonnées complétives en *-la*”, *Grammaire basque*, 400.

3. — *...desseinu hec pasionetuzqui nahi luque compli ahal baletza*. Hara-neder, 159.
  - *Baiña oraiño ecin etsituz, eta hala balitz nahiz...* Axular, 617.
  - *Oren batean garenean, bi garrenean baguina desiratcen dugula*. Axular, 160.
  - *Jaincoaren colera ez deçake jasan; nahi luke mendiac leher baleçate*. Garat, 111.
  - *Harc hobe luque baldin errota harribat haren leppoaren inguruän eçar baledi...* Leizarraga, Lk. 17, 2.
  - *Naico nuque cerbait esango bacendu aberecho batzuen gañean*. Iturriaga, in *Dialogues basques...*, 3. Bizkaieraz eta lapurteraz orobat (*erran bacineza, esango bacendu*); zubereraz *erran cenezan* ageri da.
  - *...ezteçaçula othoy aldé gaitzçera har eneganic eta ene lumaganic ezbalin baduçu erreçebitçen balacuric edo lausenguric*. Tartas, 59.

Horrako horrekin ez du berez zerikusirik, jakina, zehargalderazko perpausetan, bizkaierazko eremu batean erabiltzen den *ba-* egiturak:

- *Leengo, itundu, edo consultau bere confesoreagaz, eta gurasoacaz eta beguiratu ondo, estadu a combenietan bajaco, edo jagocanez*. Olaetxea, 147.

Adibide honetan, gramatikolari gehienek gaitzetsi duten *ba-* egituraz gainera, *-nez* erakoa dugu. Gogora, beste esenplu askoren artean, Añibarroren hau:

- *...eztakit yausico banaz...* 50.

Puntu bat uki genezake, 1.a sailari gagozkiolarik: ez da erraza bereizten perpaus konpletiboa eta non-kasuan den hitza daraman perpaus bakuna. Hots, ez dut uste zinezko diferentziarik dela bi mota hauen artean:

- a) — *Badaki lagun hurkoari laguntzen*.
  - *Ederki ikasi du futbolez jolasten*.
  - *Saiatzen naiz alemanez hitz egiten*.
- b) — *Mutilak ederki daki pilotan*.
  - *Haurrak aurten ikasi du igerian*.
  - *Hizketan utz iezaiozu*.

Mugaren ahulezia nabarmena da, izena eta aditz-izenaren arteko mugua bait da labankorra maiz. Oihenarten



*Lagun-artean,  
Hel nadinean,  
Elhaketan, erhogoan...*

(“Arguia darizanari” olerkian) pasarte zela-ta, Mitxelena galdetzen zuen, eskola batean, *elhaketan* horren gramatika kategoriaz. Eta ez da gogarazi behar euskaldun askorentzat *-ketan* aditz-izena besteren *-t(z)en-en* balio-kidea dela.

Bestalde, egituraren arabera, euskarazko harridura-perpausek, beste hizkuntza askotan bezala, konpletiboen eitea dute. *Bai dela polita!* diogunean, edota *Zein polita den!*, perpau konpletibozko egitura dugu, perpau nagusia eskuarki ageri ez delarik. *Harrigarria da zenbat dakien* perpausean, aldiz, bai.

Halaber, batzutan konzesibozko, bestetan modal eta bestetan “relativo generalizador” (cf. *Eta cer-ere escaturen baitzarete ene içenean*, Leizarraga, Jn. 14, 13) deiturikoaren adiera duten honelako perpausek konpletiboen egitura dute:

- ...edozein tokitara joaten dirala ere... I. Olea, *El Diario Vasco*, Urtarrilak 1, 1989.
- ...diranak dirala osagaiak. Gipuzkoan entzuna.
- *Nondic nai beguira dedilla...* Agirre, III, 178.

Era berean, Elizanbururen “Nere etchea” guztiz ezagunean, adibidez:

- *Nahiz ez den gaztelua*
- *Maite dut nik sor lekhua...*

konpletibo zaharraren aztarna genuke, hots, *nahiz* + *-(e)n* egituraduna. Gogoratu behar da Etxeberri Ziburukoak *nahiz* + *-(e)la* egitura darabilena, eta konpletiboez denaz bezanbatean, *-(e)n* eta *-(e)la* darabiltza, *Manual devotioenezcoa* liburuaren edizioan, 21, P. Altunak dioen bezala (honako hau aipatuz, besteak beste: ...*baiquinduen pensatcen / Gu çuhurrac guiñela eta onac erho ciraden*).

Baina nola azaldu konzesiboa + inperatiboa, Oihenarten

- *Nahiz espegui*
- *Gaiiaz ilhargui...*

hartan, adibidez? Edo S. Ignazioaren himnoko

- *Naiz betor Luzifer deabrua...?*

Badakigu, noski, subjuntiboa eta inperatiboa elkar-trukagarri eta osagarriak direla testuinguru askotan. Baina hori ahal da arrazoia? Ikus honetaz Oyharçabal, *Étude descriptive*, 701 eta darr.

Esamolde horiexekin lotua dago, jakina, disjuntibozko beste hau, funtsean konpletibozko eiteduna:

— ...*nai dala cemetuten danian, nai dala birauagaz verbia emoten danian.* Astarloa, II, 61.

— ...*eta naiz galde dezala, naiz ez...* Agirre, III, 125.

## BIBLIOGRAFIA

(Exenpluak esaten den argitaraldiगतik aipatzen dira.)

AGIRRE, J. B., *Eracusaldiac*. Hiru liburuki, Tolosa 1850. Reprint, Donostia 1978.

ALTUBE, Seber, *Erderismos*, Bermeo 1930. Facsimile, Bilbo 1975.

ALTUNA, P., "Fray Bartolomez puntu batzuk". *Euskera* 26:1 (1981), 366-377.

AÑIBARRO, P. A., *Esculiburua*. Tolosa 1845 (4. argitaraldia).

AREJITA, A., *Euskal joskera*. Bilbo 1985.

ASTARLOA, P., *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*. Bi liburuki, Bilbo 1818.

AZKARATE, Miren, *Zehar galderak: ba- denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait*. *Euskera* 27:2 (1982), 639-643.

- AXULAR, P., *Guero*. Bordele 1643. Orain facsimile, Bilbo 1988. Manuel Lekuonaren edizioa, lanean aipatua, Zarautz 1954.
- BARANDIARAN, J. M., *Obras completas*, 2. liburukia, Bilbo 1973.
- EGAÑA, Andoni, *Sokratesen mendekua*. Gasteiz 1988.
- Dialogues basques: guipuscoans, biscariens, labourdins, souletins*. Londres 1857. Reprint, Donostia 1978.
- ETXEBERRI ZIBURUKOA, J., *Manual devotioenezcoa*. Bordele 1627. Reprint, Donostia 1978. Patxi Altunaren edizioa, Bilbo 1981.
- ETXEBERRIA, J. C., *Jesusen Imitacioco edo berari jarraitzen eracusten duen librubu*. Tolosa 1829.
- ETXEPARE, B., *Linguae vasconum primitiae*. Bordele 1545. Facsimile, RIEV 24 (1933).
- GARAT, J. P., *Ceruco gakhua*. Baiona 1845 (2. argit.).
- GERRIKO, J. I., *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera*. Bi liburuki, Tolosa 1858.
- GOENAGA, P., *Gramatika bideetan* (2. argit.), Donostia 1980.
- GOENAGA, P., *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Argitaragabeko tesia, Gasteiz 1984.
- GOENAGA, P., "Complementación y nominalización en euskara". *ASJU* 19:2 (1985), 493-570.
- GOENAGA, P., "Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak", in *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Bilbo 1986, 155-189.
- GOENAGA P., "Perpau konpletiboei buruz". *Euskera* 25:2 (1980), 581-596.
- HARANEDER, J., *Gudu izpirituala*. Baiona 1827 (2. argit.).
- ITURRIAGA, A. P. Ikus *Dialogues basques*.
- IZTUETA, J. I., *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. Donostia 1847.
- KAPANAGA, M. O. de, *Exposicion breue de la doctrina christiana*. Bilbo 1656.
- LAFITTE, P., *Grammaire basque*. Baiona 1944. 3. argit., Donostia 1987.
- LANDART, Daniel, *Hogoi urte*. Baiona 1968.
- LEIZARRAGA, J., *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, La Rochelle 1571. Reprint, Donostia 1979.

- MADARIAGA, B. (hots, Prai Bartolome Santa Teresa), *Icasiquizunaç*. Bi liburuki, Iruñea 1816.
- MAIZTER, M., *Jesu-Kristen Imitacionia Çuberouaco uscarala...* Pabe 1757.
- MITXELENA, L., *Textos arcaicos vascos*. Madrid 1964.
- MOGEL, J. A., *El Doctor Peru Abarca...* Durango 1881. Reprint, Bilbo 1981.
- MUJKA, J. A., “Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragagan”. **Eusker**a 25:2 (1980), 597-629.
- OIHENART, A., *Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies du mesme auteur*. Paris 1657. Facsimile, Tolosa 1936. Zatz RIEV 26 (1935).
- OTXOA DE ARIN, J., *Doctrina christianaren explicacioa*. Donostia 1713. Dodgsonen edizioa, Donostia 1902.
- OYHARÇABAL, B., *Les relatives en basque*. Paris 1985.
- OYHARÇABAL, B., “Erlatibakuntza: Perpaus erlatiboaren egitura; izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean”, in *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Bilbo 1986, 131-153.
- OYHARÇABAL, B., *Étude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*. Thèse de Doctorat d'État. Argitaragabea, Paris 1987.
- OLAETXEA, B., *Cristinauben dotrinia*. Bilbo 1846 (8. argit.).
- DE RIJK, R., *Studies in Basque syntax: relative clauses*. Argitaragabeko tesia. Boston 1972.
- DE RIJK, R., “Relative clauses in Basque: a guided tour”, in Peranteu, P., Levi, J. N., eta Phares, C. P. ed., *The Chicago witch hunt. Papers from the Relative Clause Festival*. Chicago 1972.
- TARTAS, J. de, *Onsa hilceco bidia*. Orthez 1666. P. Altunaren edizioa (lehen bi kapituluak), Bilbo 1987.
- VILLASANTE, L., *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñati 1974.
- VILLASANTE, L., *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati 1976.